

Estatuak kalte ordaina emango die hemofiliko HIESdunei

MADRIL

Marcos Peña Osasun Ministerioako Osasun sailko idazkari nagusiak aitortu egin zuen atzo hemofiliko espainiarren % 47k HIES gaitza dutela eta Estatuko kalteordainak emango dituela. Hemofilikoen elkarrekin diotenaren aurka, Peña ukatu egin zuen odol kutsatuaren erantzukizun zuzena Osasun Ministerioarena denik, gertatu zenean —1983 eta 1985 artean— «ez baike nuen HIES gaitza behar bezain ondo ezagutzen».

Peña prentsaurrekoan esan zuenez, Osasun Ministerioa prentse dago hemofilikoen elkarrekin ordezkariekin biltzeko, «HIESaren kutsatzeak zer-nolako eragin izan duen ikusteko eta ahal den neurrian, sortu den kaltea konpontzeko». Konponketa hori «diru kopuru» bat izango dela ziurtatu zuen Peña, baina ez zuen kopururik aipatu nahi izan, «ez dudalako, jendaurrean, hemofilikoen arazoa diru kontu bihurtu nahi». Espainiako Hemofilikoen Federazioak, ordea, 20.000 eta 30.000 milioi pezeta artean eskatzen ditu kaltetu guztientzat. Dirutza hori ematen ez bazaie, Insaluden aurkako salaketa pertsonalak aurkeztuko dituztela iragarri dute.

«MINISTERIOAK OSASUN SAILEKO ZUZEN IDAZKARIAK GEZURTATU EGIN ZUEN ESPAINIako Hemofilikoen Federazioak herenegun baiezutakoa, hau da, «Administrazioak erantzukizun objektiboa» duenik. Hemofiliko elkarrekin honen esanetan, Espainian dauden 2.730 hemofilikoetatik 1.147k HIESaren birusa dute eta 1983. urteaz geroztik 416 hil dira gaixotasun honek jota. Kutsatzea, ospitale publikoetan 1985eko maiatzera arte egindako odol transfusioen ondorio izan zen.

Hemofilikoen ustetan Administrazioak ez zituen behar besteko neurriak hartu odol kutsatze hori eragozteko. Marcos Peña berriz, «zientziaren egoerak 1983an, Osasun Administrazioaren erantzun egokia» ez zuela ahalbidetzen erantzun zuen eta une horretan jokatu zen moduaz «harro nago» gaineratu zuen.

Merkataritza gerra galerazi nahian bildu dira Clinton eta Mitterrand

Hazi oliotsuek eta altzairuak Frantzia eta EEBBen arteko harremanak okertu dituzte

Estatu Batuen eta Frantziaren artean sor litekeen merkataritza gerra izan zen atzo François Mitterrand eta Bill Clinton bi herrialdeetako lehendakariak izandako elkarrizketaren ardatz nagusietakoa. Bosniako egoerak, Errusiari eman beharreko laguntzak eta NATOren etorkizunak ere beren lekua izan zuten Clinton eta Mitterrandekin egin zuten lehen elkarrizketan.

PARISE-WASHINGTON

Estatu Batuek eta Europako Komunitateak (EK) ez dituzte beren unerik goxoenak bizi merkataritza arazoak direla tartean. Desadostasun horiek are nabariagoak dira Parise eta Washingtoneko gobernuen artean, Frantziak ezezkia eman baitio GATTeko negoziazioen barnean lortutako nekazaritza produktuei buruzko akordioari.

«Frantzia eta Estatu Batuen artean ez da merkataritza gerririk izango» atzo bere izena eman nahi izan ez zuen goi iturri estatubatuar batek esan zuenez, eta Clinton eta Mitterranden arteko bilera gatazkak galerazteko balioko duela gehitu zuen.

Nekazaritza da Frantzia eta Estatu Batuetako gobernuen artean desadostasun gehien sortzen duen arloa. GATTeko hazi oliotsuei buruzko akordioa sinatzeaz ezeztatu eman ondoren, Estatu Batuek Frantziako zenbait produkturen —ardo eta gazta batez ere— inportatzeari zerga gogo-



Lehen aldiz bildu dira Mitterrand eta Bill Clinton.

rrak jarri zizkietela ikusi zuen Pariseko Gobernuak.

Nekazaritza gain, EK-ko altzairuaren inportatzeari Clintonnek ezarritako tasa berriak beste merkataritza gerra baten sorburu izan litezke. Estatu Batuek neurri hau indarrean jartzen badute, EK-k produktu iparramerikarrei ere trabak jartzea eskatu du Frantziako Gobernuak.

Baina nekazaritza eta altzairugintza alde batera utzita, beste zenbait gaietan ere ez datoz bat Clinton eta Mitterranden Gobernuak. Telekomunikazio, energia eta ur banakuntza sektoreetan EK-k bertako produkzioari lehentasuna ematen dion eraba-

kia bertan behera uzten ez badu, Estatu Batuek bere merkatuak itxiz erantzun lezake.

Hegazkigintzan ere, Europako lau herrialdek (Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Espainia) Airbus proiektuari ematen dizkieten dirulaguntzak kentzea eskatu zion atzo Clintonnek Mitterrandi, kalte handia egiten baitiete Boeing eta McDonnell Douglas iparramerikarrei. Clintonen esanetan, lau herrialde horiek 26.000 milioi dolare eman dizkiete Airbusi eta horren ondorioz Boeing bere aurkari zuzenak 28.000 langile kaleratu ditu.

Bosniako gerraren auzian berriz, Parise eta Washingtoneko

Gobernuak ados daude serbiarren aurkako enbargoa sendotu behar dela esatean. Bosnia gaineko hegaldi militarrek debekatzeko hartutako erabakia beteaz nahi dute estatubatuarrek. Frantzia eta Segurtasun Kontseiluko beste kide iraunkorrak —Txina, Erresuma Batua eta Errusia— debeku hau betearaz dezaten eskatu zion atzo Clintonnek Mitterrandi.

Atzo Mitterrandekin bildu ostean, Bill Clinton Estatu Batuetako lehendakaria Boris Ieltsin Errusiako presidentearekin bilduko da datorren astean Moskuan, eta apirilaren 3an Vancouver-en (Kanada).

Juan Borbonekoa oso osasun egoera larrian dago Nafarroako Ospitalean

IRUÑEA

Juan Borbonekoa «egoera larrian dago» atzo Iruñeko Nafarroako ospitaleko medikuek zabalduak komunikatu esaten denez. Juan Carlos Espainiako erregearen aitaren osasun egoera «nabarmen» okertu zen herenegungo azken orduetan, eta atzo goizean arnasa hartzeko zailtasunak izan zituen. Berri hau idatzeko orduan medikuek zabaldu zuten azken agiriaren arabera, Juan Borbonekoa «larritsunaren barnean egoera egonkorrean» zegoen. Bere bihotz-taupadak «normalak» ziren, baina «desoreka hemodinamiko garrantzitsua» zuen.

Bere aitaren egoera larria ikustean, Juan Carlos errege es-

painiarra Iruñera abiatu zen, Sofia erregina eta bere arrebeekin batera. Atzo goizean, Cristina printzesa iritsi zen eta arratsalde parterako Felipe printzea ailegatuko zela iragarri bazen ere, ez zen etorri beharrezkotzat jo ez zutelako. Elena printzesa ere ez zuen Iruñeara joan behar Erret Etxeko iturriek jakitera eman zuten. Erret familia Nafarroako hiriburuan izango da Don Juanen osasuna hobetzen ez den bitartean, beti ere Erret Etxeak zabaldu zuenez.

Don Juan irailaren 16ean ingesatu zuten Iruñeko Nafarroako ospitalean, laringeko tumorea baitzuen. Orduz gero bere osasunak okerrerrantz egin du gutxinaka-gutxinaka eta batez ere azken egunotan.



Espainiako Errege-erreginak Iruñeko ospitalean.

EFE